

TAXOARETIK

■ Asier Legarda-ereño

Mailari eutsi eta zerbait gehiago

Aldaketa gutxi izan da Osasunan, nahiz eta iragan denboraldiaren amaieran Javier Miranda presidentek eta Miguel Anjel Lotina entrenatzaileak kluba utzi. Patxi Izko presidente berria gauzak aldatzen saiatu da —*Gorritxo* izeneko maskota deuseztatu du, kazetariatzat kabina berriak egiten ari da Sadarren, eta aurreko zuzendari batzordeak Sadarreko sarreran ipini zituen koadro eta

argazki guztiak kendu ditu—, baina gauzak hainbeste ez direla aldatu dio oraingo egoerak.

Contrerasen ordez Vidrio ekarri du Aguirrek, eta oraindik ezer gutxi erakutsi du, gainera. Fernandez tokirako Antonio Lopez, Olarraren tokirako Paqui eta Armentano eta Sabinoren ordez Ochoa eta De Carlos. Pablo Garcia ere iritsi da. Denboraldi-aurrean, dena den,



CRISTINA BERRAIN
Juan Carlos Unzué, lan saio batean.

iragan denboraldietako akatsak erakutsi ditu Osasunak: markagailuan atzetik jarri arte, bigun eta kontzentrazio gutxi-ekin, eta erasoan kamuts ia beti.

Denboraldi berrirako helburuak ere ez dira aldatu. Izko, Aguirre eta jokalaritza ugariaren ahotik honakoa entzun dugu: mailari eustea da helburua. Baina ia beti bezala, Juan Carlos Unzué atezainak adierazpen zuzenak egin zituen herenegun. Mailari eustea baino zerbait gehiago eskatu zion taldeari. Eta ez zen UEFAz ari. Lehen Mailan finkatzeko ordua da.

ALAVES. Presidenteak espero du aurtengo UEFA Kopako lehen bi kanporaketak gainditzea

UEFAko lehen aurkaria gertu

Biharko zozketatik aurrelari bat eta hegaleko bat utzita ekartzen saiatuko da Gonzalo Anton

Jon Rejado | GASTEIZ

Denboraldia hastear dagoen arren, bihar inork ez du buruan izango Rayo Vallecanoren kontrako partida, begi guztiak Monakoko Printzerriari begira egongo baitira. Bertan egingo dute UEFAko kanporaketen zozketa, eta orduan jakingo du Alavesek irailaren 19an zein talderen kontra jokatu duen lehen kanporaketako joaneko partidari. Alaves zerrenda buru agertzen da aurtengo zozketan. Egoera horrek teoriarik maila gutxiagoko taldeen kontra jokatzeak aukera ematen duen arren, inork ezin du ahaztu talde txiki gisa finalera heldu zela Alaves.

Gonzalo Antonek Gasteiz Irratian egindako adierazpenetan esan duenez, lehen bi kanporaketak gainditzea espero du, eta hortik aurrera zerbait lortzen badu ongi etorria izango da. Alaveseko presidentek zuzenean ikusiko du UEFAko zozketa, gaur bertan hegazkina hartuko baitu Monakoko Printzerriaren egingo dituzten ekimenterik parte hartzeko. Nolanahi ere, jokalariek ondo asko dakite aurtengo txapelketak ez duela orain dela bi urte egindakoarekin zerikusirik izango. Hermes Desiok argi dauka Alaves talde ezaguna dela jada. Hala, faborito gisa aurkeztuko du Gasteizko taldea hasierako partidatan, eta horrek tentsioa handituko du.

Irizpide geografikoak

UEFA Kopako lehen kanporaketan 96 taldek hartuko dute parte, bi talde bereiztuta, 48 talde izango baitira zerrendaburu. Hala, Kopa irabaz dezaketenen faboritoak ez dira haien artean neurtuko, eta azken partidatan, faborito gehienak ikus-

TXAPELDUNEN LIGA

Lehen faseko multzoen zozketa egingo dute gaur

Gaur goizean argituko dute zein taldek osatuko duten Txapelunen Ligako lehen faseko multzo bakoitza. Zozketa gaur egingo dute, nahiz eta oraindik Europa mailako txapelketa garrantzitsua jokatuko duten hogeita hamabi taldeak ez dauden zehaztuta. Aipatutako taldeak zortzi multzotan banatuko dituzte, eta, ligatxo bat jokatuta ostean, multzo bakoitzeko lehen bi sailkatuek aurrera egingo dute, eta bigarren fasea jokatzeak aukera izango dute.

Zozketetan egin ohi den bezala, lau taldeetan banatuko dira Txapelunen Ligan jokatuko duten hogeita hamabi taldeak, UEFAk banatutako puntu arabera. Lehen zortzi taldeak lehen kuxan izango dira, hurrengo zortziak bigarren kuxan, ... Horretaz gain, bihar arratsaldean jakingo dute zeintzuk izan ziren jokalaritza onenak iragan denboraldian.

teko aukera izango da. Bestalde, zozketa egiteko erabiliko diren irizpideen artean, geografikoak ere izango dira, hasierako kanporaketetan bidaia luzeak ekiditeko.

Gonzalo Anton Alaveseko presidentek zozketa ikusiko duen arren, beste helburu batzuekin hartu du hegazkina. UEFA eta Txapelunen Ligako zozketan Europako talde



MANUEL REGUEIRA / EFE
Gonzalo Anton Alaveseko presidentea.

handietako presidente gehienak izango dira, eta horrek hainbat jokalaritza lortzeko aukera eman diezaioke Gonzalo Antoni. Hainbat klubeko agintari nagusiekin hitz egin du dagoeneko Alaveseko presidentek, eta Monakon azken pausoak eman nahi ditu bi jokalaritza lortzeko: aurrelari bat eta hegaleko bat.

Manek oporrak hasi bezain

pronto jakinarazi zion presidenteari Alavesek aurrelari bat behar zuela eraso indartzeko. Fitxaketa astelehena baino lehen zehaztu behar dutenez, aukera paregabea izan daiteke UEFA Kopako zozketarena.

Gonzalo Antonek lortu nahi duen bigarren jokalaritza zelaiaren bi hegaletan jokatzen jakin behar du. Horrela, atzeko lehorra gutziz sendotuko litzateke.

OSASUNA

Athletico Madrilen kontra irabazi zuen hamaikakoa Vila-real-en izango da hasieratik

Asier Legarda-ereño | IRUÑA

Atzo goizean Taxoaren egindako entrenamenduan erakutsi zuenaren arabera, Javier Aguirre iragan larunbatean Athletico Madrili 2-3 gailendu zitzaion hamaikakoa errepikatzeak asmatan dela ondorioztatu daiteke. Oraindik ez du erabat baieztatu hamaikakoa Aguirrek, baina Vila-real-en ere Palacios izan daiteke berritasun nagusia, Ochoa mexikarraren kalterako.

Unzué, Krutxaga, Manuel Vidrio, Josetxo, Yanguas, Puñal, Antonio Lopez, Alfredo, Gancedo, Palacios eta Ivan Rosadoren probatu zuen atzo Aguirrek, eta, azken orduko ezustekorik ez, hamaika gizon horiek hasiko dute 2002-2003ko denboraldia Vila-realeko Madrigal futbol zelaietan.

Cesar Palacios gustura azaldu zen atzo. «Entrenatzaileak ez digu ezer baieztatu oraindik, baina aukerak ditudala ikusten dut, eta ilusio handia daukat. Denboraldia garaiaren batekin hasi nahi dugu; ea lortzen dugun», esan zuen atzo gorritxoaren kapitainak.

Pablo Garcia eta Paquik ere jokatzeak aukera dute

Gorritxoaren azken bi fitxaketen sasoi ere ikusteko dago oraindik. Paqui ez da sasoi betean, eta nahiko larri dakusa bere burua partida oso bat jokatzeak. Dena den, Pablo Garcia bezalaxe, arazorik gabe entrenatzen ari da aste osoan. Biek dute deialdian sartzeko aukera.